

# KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILEKO HIZKUNTZA INKLUSIBOAREN JARRAIBIDEAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILEA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**b** BERDINTASUNERAKO  
UNITATE  
ADMINISTRATIBOA  
ADMINISTRACIÓN ÚNICA  
*Kultura berdintasunerantz erabiltzen!*



**E**makumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 18.1. artikuluan honako hau jasotzen da: "Euskal herri-agintek ez dute hizkera sexistarik erabiliko zuzenean edo beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan".


Feminismoaren eskaerei esker, eta, hain zuzen ere, artikuluko horren moduko lege aurrerakoiei esker, gaur egun kontzientzia handiagoa dago, bai gizartean, bai Administrazioaren barruan, emakumeen eta gizonen errealitatea ikustarazten duen eta berdintasuna eta aniztasuna sustatzen duen hizkuntza bat erabiltzeak duen garrantziaz.

Gaur egun badakigu hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea, legezko agindua izateaz gain, emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrera egiten jarraitzeko modu bat dela. Hizkuntza pentsamendu-tresna bat da eta errealitatea interpretatzeaz gain, sortu ere egiten du. Hizkuntza sozializatzeko tresna ere bada, eta elkarrekin eraikitzen ditugun harremanak baldintzatzen ditugu gure hizketa egintzen bidez ere. Hizkuntzaren erabilera eraldatuz, sexismoa, arrazismoa, kapazitismoa edo LGBTBI kolektiboen fobia sahiesteko urratsak emango ditugu. Horretaz gain, hizkuntzak ahalmen handia du errealitateak eraldatzeko eta imajinario berri integratzaileagoak, demokratikoagoak eta berdintasunezkoagoak eraikitzeko.

Testuinguru horretan, eta komunikatzeko modua aldatzeak duen konplexutasunaz jabetuta, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko guztiok hizkuntza, euskaraz eta gaztelaniaz, modu inklusiboan erabiltzeko jarraibideak sortu ditugu.

Gaiaren inguruan material eta gida ugari daudela jakinik, dokumentu hau egiteko, saileko Berdintasun Unitateak langileak eta kargudunak prestatzeko eta sentsibilizatzeko prozesu bat abiarazi zuen 2021eko hasieran. Materiala hau lan haren emaitza da; saileko langile eta arduradun politikoekin kontrastatu dugu, eta haien beharretara eta eremuetara egokitzen saiatu gara. Jarraibideez gain, 2022. urteko egutegi bat ere egin dugu. Horretan, euskararen erabilera inklusiboa egiteko jarraibideak jaso ditugu.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu prozesu honetan parte hartu duzuen saileko langile eta kargudun guztiei. Espero dugu materialak denontzako interesgarriak eta erabilgarriak izatea, eta guztion artean komunikazio inklusibo baterantz aurrera egitea Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean ■



**Bingen Zupiria Gorostidi**

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

# 01

EUSKARA ETA  
EMAKUMEEN  
IKUSGAITASUNA

8. orrialdea

# 02

EMAKUMEEN  
IKUSGAITASUNA,  
GAZTELANIAZ ARI  
GARENEAN

14. orrialdea

# 03

PERTSONAK  
IZENDATZEA

20. orrialdea


# 04

SEXU-GENERO  
ANIZTASUNA,  
HIZKERAN

24. orrialdea

01

EUSKARA ETA EMAKUMEEN  
IKUSGAITASUNA




**1.1. —** Euskaraz, hurrengo kasuetan generoei erreferentzia egitea (hizkeran edo irudien bidez) komeni ote den baloratuko dugu, kasuz kasu. Irudiez balia gaitezke emakumeen ikusgaitasuna bermatzeko. Irudirik ez badago, diskurtsoan erreferentzia esplizituak sar ditzakegu.

**A.** Emakumeek egiturazko diskriminazioa jasaten dutela kontuan hartuta, eremu maskulinizatuetan emakumeen parte-hartzea sustatzeko edo aitortzeko komunikazio estrategiak erabiliko ditugu.

**ADIBIDEAK:**

- *Pilota-ikastaroan 8-12 urte bitarteko neska-mutilek eman dezakete izena.*
- *“Boxeo-entrenatzaile ikastaroa”-ren publizitateko irudian emakume bat agertzea.*

 **Oharra:** zenbait kasutan, eremu feminizatuetan gizonen parte-hartzea sustatzeko edo aitortzeko beharra ere ager daiteke, beti ere kontuan izanda eremu feminizatu horietan ere sarri gizonen aldeko dinamikak gertatu ohi direla (esaterako, eliteko sukaldaritzan eta modan).

**ADIBIDEAK:**

- Pilatesari buruzko testu bateko irudian, emakumeak eta gizonak agertzea.
- Euskaraldian hiru parte-hartzailetik bi emakumeak direla kontuan hartuta, testuetan eta irudietan gizonen parte-hartzea sustatzea.
- Helduen euskalduntzeko kanpainetan gizonen irudiak ere agertzea (gizonezkoen matrikula-kopurua txikiagoa delako).

**B.** Estereotipo sexistei lotutako asoziazio inkontzienteak saihestuko ditugu:

**ADIBIDEAK:**

- Omenaldian, eskualdeko futbolariak, emakumeek zein gizonak, parte hartu dute.
- 12 euskal enpresarik (5 emakume eta 7 gizon) Bikain ziurtagiria jaso dute.
- Nerabeei, neskei zein mutilei, gehien gustatzen zaizkien bideo-jokoak Pokemon Go eta Fortnite dira.

**C.** Emakumeen eta gizonen arteko parekidetasun-falta edo indarkeria sexistarekin lotutako egoerak ematen direnean, subjektuen genero-marka agerian utziko dugu:

**ADIBIDEAK:**

- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak adierazpen bat zabaldu behar du, euskal zinemagile batek sexu jazarpen salaketak jaso dituela-eta. Kasu horretan, estrategia egokiena aukeratuko dugu salatuaren eta erasotuen generoak adierazteko (zine-magilearen izena hasieratik aipatu, “zortzi emakumek euskal zinemagile gizonetako bat salatu dute”, eta abar).
- Euskaltzaindiak bost euskaltzain-urgazle izendatu ditu, lau gizon eta emakume bat.
- Euskal kirol-federazioetako presidentetek, guztiak gizonetakoak, adierazi dute...
- *“Zure taldekoak gara”* zerbitzuan—kirol arloan sexu-gehiegikeria, sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena salatzen zerbitzua— aurten 255 kirolarik salatu dituzte kiroleko indarkeria-egoerak; horien % 95 emakumeak izan dira.

**1.2.** — Euskaraz zuzenak ez diren edota androzentrikoak<sup>2</sup> diren hurrengo joerak saihestuko ditugu:

**A.** Euskaraz neutroak diren hitzak feminizatzea (☒ alkatesa, ☒ aktorea, ☒ ministra, ☒ presidenta...)


**B.** Maskulinoaren erabilera orokortzaileak, euskaraz zein gaztelaniaz euskarazko hitzak erabiltzen ditugunean, eta hutsune lexikoak:

TXARTO	ONDO
☒ Semeak, anaiak, legegi-zonak	☑ Seme-alabak, neba-arrebak, legelariak
☒ Kirol-munduan anaitasuna sustatu behar dugu	☑ Kirol-munduan elkartasuna sustatu behar dugu
☒ Agure-etxeetako egoera latza jaso du dokumental batek	☑ Adinekoen etxeetako egoera...
☒ Bertsolariak plazagizonak dira	☑ Bertsolariak plazagizonak / plazandreak dira
☒ Zazpi maisulan goraiatu ditu Euskadi Literatura Sarietako epaimahaiak	☑ Goi-mailako zazpi lan goraiatu ditu Euskadi Literatura Sarietako epaimahaiak

**1.3.** — Hitanoa galtzeko arriskuan dagoen euskararen erregistro informala da eta euskararen ondareztat daukagu. Nokaren erabilera (emakumeei egiten zaien hika) murrizten ari da; toka (gizonezkoen hika) baino gutxiago erabiltzen da. Hortaz, kultura eta feminismoaren arloko emakume eta gizonezko euskaltzaleok noka biziberritzeko ahaleginarekin bat egingo dugu aukera hori dagoenean: ahozko testuinguru ez-formalean, programen izenetan, edo publikitatean, esate baterako.

**ADIBIDEAK:**

- *Aizan! Aizak! Etor hadi eskolarteko kirol-jokoetara!*
- NOKA da emakume zinemagileei zuzendutako programaren izena.

 **Oharra:** maisulanen baliokide gisa maisuralan proposatu da, baina hiztegiek ez dute onartzen. Eztabaida sortzen du, eta saiaturako gara ez erabiltzen, ez bata ez bestea.

<sup>2</sup> **Androzentrismoa** Gizona ardatz duen pentsaera eta jokabidea; erdigunean jartzen du, bizitzaren alderdi guztietan, gizonekin eta maskulinitatearekin lotutako oro, bazterrean eta ikusezin utzita emakumeak eta haien esperientziak. Feminismoa eta berdintasuna Hiztegia (2020), Kultura eta Hizkuntza Politikako Saila eta Emakunde. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia: Gasteiz.

# 2022

EMAKUMEEN IKUSGAITASUNA,  
GAZTELANIAZ ARI GARENEAN



# 1. EMAKUMEEN IKUSGAITASUNA, GAZTELANIAZ ARI GARENEAN

**1.1.** — Maskulino orokortzailea saihestuko dugu. Horretarako, testu-motaren arabera hainbat baliabide erabil ditzakegu. Oro har, testu luzeetan komunikagarritasunaren alde egingo dugu, eta estrategiak konbinatu. Honakoak dira baliabideak:

**A. HITZ ABSTRAKTUAK ETA UNIBERTSALAK:** alumnado, ciudadanía, personal, plantilla, equipo técnico...

**ADIBIDEAK:**

- Los codirectores del programa estamos a tu disposición para cualquier aclaración.*
- Desde la codirección del programa, estamos a tu disposición para cualquier aclaración.*

Kontuan hartuko dugu diskurtsoetan formula horiek ez dutela gertutasun handirik transmititzen.

**B. “PERSONAS” HITZA:**

TXARTO	ONDO
<input checked="" type="checkbox"/> destinatarios	<input checked="" type="checkbox"/> personas destinatarias
<input checked="" type="checkbox"/> usuarios	<input checked="" type="checkbox"/> personas usuarias
<input checked="" type="checkbox"/> beneficiarios	<input checked="" type="checkbox"/> personas beneficiarias
<input checked="" type="checkbox"/> interesados	<input checked="" type="checkbox"/> personas interesadas
<input checked="" type="checkbox"/> federados	<input checked="" type="checkbox"/> personas federadas

**B.1.** – Estrategia hori erabiltzean ohikoak diren komuntadura-akatsak ekidin beharko ditugu:

**ADIBIDEAK:**


- Las principales personas beneficiarias son los desempleados de larga duración.*

- Las principales personas beneficiarias son las desempleadas de larga duración.*

**B.2.** – Gaztelaniatik euskarara itzultzen dugunean, euskarazko hitz orokortzaileak erabiliko ditugu (ez itzulpen-kalkoak):

**ADIBIDEAK:**

- Ciudadanía
  - Hiritarrak
  - Herritarrak
  - Biztanleak
- Personas beneficiarias
  - Pertsona onuradunak
  - Onuradunak
- Ayudas para la infancia y adolescencia
  - Haurtzaro eta nerabezarorako laguntzak
  - Haur eta nerabeentzako laguntzak

 Oharra: diskriminatuta dauden taldeen kasuan, “persona” formula erabiliko dugu; esaterako, “persona transexualak” edo “persona atzerritarrak” (ez baitira izenak baizik eta izenondoak).



**C. FORMA BIKOITZAK:** egoki eta zilegi da erabiltzea, nahiz eta saiatu behar garen esaldi errepikakorrak saihesten. Ordenari dagokionez, maskulinoa beti lehenetsi ordez, femeninoa rekin tartekatuko dugu.

**ADIBIDEAK:**

- Las entrenadoras y entrenadores. Las y los árbitros. Los y las participantes. Las y los becarios. Querida socia, querido socio.

Komunztadurari dagokionez, izenondoek hurbilen duten izenaren genero-marka hartuko dute:

**ADIBIDEAK:**

- Un alumno o alumna se considera matriculada una vez realizado el pago dentro de plazo.

**D. GENERO-MARKAK:** publizitatean eta kazetaritzan, eraginkorra izan daiteke.

**ADIBIDEAK:**

- EITBren iragarki batean: "Presentadoras, locutores, realizadoras, productores, técnicas de sonido, técnicos de cámara, peluqueras, maquilladores... Todas, todos, somos EITB".

Testu administratiboetan, ordea, ez da gomendagarria.

**E. ELIPSIK:** subjektua edo artikulua ez aipatzea, genero-marka bat "aurrezteko", beharrezkoak ez direnengan.

**ADIBIDEAK:**

- ☒ *Estuvieron presentes en la reunión los representantes de muchos países.*
- ☑ *Hubo representantes de muchos países en la reunión.*

**F. PERIFRASIAK, FORMA PERTSONALAK ALDATZEA...**

TXARTO	ONDO
☒ Cuando uno compite	☑ Al competir
☒ El que conoce la normativa	☑ Cuando compites
	☑ Cuando se compite
	☑ Quien conoce la normativa

TXARTO	ONDO
☒ Estamos orgullosos de que hayas aceptado formar parte de este proyecto	☑ Sentimos un gran orgullo por que hayas aceptado
	☑ Nos enorgullece que hayas aceptado

**G. BARRAK:** espazio-arazo nabarmenak daudenean soilik erabiliko ditugu: formularioetan, tauletan, grafikoetan, txioetan. Dena den, gainerako estrategiak lehenetsiko ditugu.

**H. E letra (todes):** genero-aniztasunarekin lotutako eremuetan zabaltzen ari da, eta genero neutro funtzioa duen alternatiba gisa proposatu dute sexu- eta genero-aniztasunaren aldeko sektoreek. Baina hizkera administratiboan oraindik ez dago onartua. Hortaz, oraingoz eremu informalean erabiliko dugu, hautu pertsonal gisa. Bestetik, a bildua (tod@s), eta ixa (todxs) ez ditugu inoiz erabiliko, ezta grafismoetan ere, ezin direlako ahoskatu.

**I. FEMENINO OROKORTZAILEA:** erregistro ez formaletan erabil dezakegu; esaterako, ahozko hizkeran edo sare sozialetan, hautu pertsonal gisa.

**ADIBIDEAK:**

- Mugiment-en Twitter-kontuan: "¡Nos sentimos orgullosas!"

Halaber, emakumeen egiturazko diskriminazio-egoerarekin lotura zuzena duten errealitatez ari garenean ere egokia izan daiteke:

**ADIBIDEAK:**

- *Programa para reconocer la aportación de las costureras y modistas vascas al patrimonio cultural.*
- *Un documental visibiliza la realidad de las trabajadoras del hogar internas.*

# 03

PERTSONAK IZENDATZEA



## 2. PERTSONAK IZENDATZEA

### 2.1. — Pertsonak izendatzean, erabilera simetrikoak egingo ditugu:

Emakumeak izenez edo izen-abizenez eta gizonak abizenez izendatzeko joera (ahozko hizkeran ohikoa da) saihestuko dugu:

#### ADIBIDEAK:

- ☒ Egaña eta Maialen Lujanbio
- ☒ Urkullu eta Arantxa Tapia

Horrez gain, euskaraz zein gaztelaniaz, izen-abizenak erabiliko ditugu, abizena soilik erabiltzeak genero-estereotipoak ekar dezakeenean (esaterako, ministroak, sailburuak edo errektoreak aipatzean).

#### ADIBIDEAK:

- Eva Ferreira izango da EHUko errektorea

Esan bezala, euskarazko ahozko hizkera informalean, gizoni toka eta emakumei zuka egiteko joera saihestuko dugu.

#### ADIBIDEAK:

- - Bi aukera hauen artean zein iruditzen zaik onena, Joseba?  
- Joseba: Ez diat oso garbi, baina... xxx
- - Eta zuri, Laura, zein iruditzen zaizu aukerarik onena?  
- Laura: Nik bereziki garrantzia eman diot... xxx

### 2.2. — Kirolean hizkera eta formula berberak erabiliko ditugu gizonezkoen edo emakumezkoen taldeez ari garenean.

#### ADIBIDEAK:

- Los hombres del Athletic vs. Las chicas del Athletic.

Androzentrismoaren ondorioz, ohikoa da emakumeen kirolaz ari garenean bakarrik zehaztea generoa (\*Reala vs. emakumezkoen Reala). Hori ekiditeko, hainbat estrategia erabil ditzakegu, besteak beste, entrenatzaileei edo ligen ize-

nei erreferentzia egitea (informazioaren hartzailleak testuingurua ezagutzen duenean). Beste estrategia bat izan daiteke emakumeen kirolaz, gizonen kirolaz edo kirol mistoaz hitz egiten dugun gutzietan aipatzea generoa.

### 2.3. — Gutunetan, formularioetan, eskaera-orrietan eta ziurtagirietan, “Jaun/Andre agurgarria” formularen ordez, neutroak erabiliko ditugu: “Herritar agurgarria”, “Langile agurgarria”, eta abar. Gaztelaniaz, forma bikoitzak erabiliko ditugu: “Estimada beneficiaria, estimado beneficiario”. Beste aukera bat da testu elebidunetan agurrak euskaraz bakarrik jartzea.

### 2.4. — Gaztelaniaz, lanbideak eta karguak izendatzeko orduan, emakumei buruz ari garenean, forma femeninoak erabiliko ditugu. Erresistentziak badaude ere, horiek dira hiztegiek egokitzat hartzen dituztenak.

TXARTO	ONDO
☒ La técnico de normalización lingüística	☑ La técnica de normalización lingüística
☒ La árbitro	☑ La árbitra



Oharra: zalantzak edukiz gero, “*Panhispañolico*” de dudas edo “*Fundéu*” webguneetara jo dezakegu.

“*La juez*” eta “*la jueza*”, biak onartuta daude, baina “*jueza*”-k komunztadura-arazo gutxiago ematen ditu: “*La jueza deportiva*”.

# 04

SEXU-GÉNERO ANIZTASUNA,  
HIZKERAN



### 3. SEXU-GENERO ANIZTASUNA, HIZKERAN

#### 3.1. — Sexu- eta genero-aniztasuna aitortzeko hainbat jarraibide hartuko ditugu kontuan:

**A.** Familia-ereduei buruz ari garenean, molde heterosexistak saihestuko ditugu:

- Eskola-kiroleko formulario batean, Aita eta Ama laukiak jarri ordez, Guraso 1 / Guraso 2 jarriko ditugu.

**B.** “Ez bitarra” aukera zabaltzen ari da genero-aniztasuna aitortzeko. 4/2005 Berdintasunerako Legeak ez du “Ez bitarra” formula jasotzen. Hala ere, aukera hori zabaltzen ari da genero aniztasuna ikusgarazteko, eta erabili dezakegu barneko galdetegietan eta herritarrei zuzendatutako ekimenetan, Euskaraldia kasu.

**C.** Homofobia ez da termino orokortzailea: LGTBfobia erabiliko dugu, edo fobia guztiak aipatu: lesbofobia, homofobia, transfobia eta bifobia. Era berean, “homosexualak” baino, “gay eta lesbianak” erabiliko dugu.

**D.** Transexual<sup>2</sup> edo transgenero<sup>3</sup> baino, “trans” orokortzailea erabiliko dugu.

**E.** Kirol-munduan batez ere, bi sexuei esleitutako ezaugarri anatomiko edo kromosomikoak dituzten pertsonen buruzko albisteak, eztabaidak edo ekimenak agertu ohi dira. Pertsona horiek izendatzeko termino zuzena “pertsona intersexuala” da (“hermafrodita” hitza ez da egokia).

---

<sup>2</sup> **Transexual:** Jaiotzean ezaugarri biologikoen arabera esleitu zaion generoaren aurkakoarekin identifikatzen den pertsona transgeneroa.

<sup>3</sup> **Transgenero:** Jaiotzean ezaugarri biologikoen arabera esleitu zaion generoarekin identifikatzen ez den pertsona.

#### Edizioa

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

#### Aholkularitza teknikoa

June Fernández

#### Ilustrazioak

Janire Orduna Díaz

#### Diseinua eta maketazioa

Janire Orduna Díaz